

B

BARREN



ideko
ik4 research alliance



Ideko Teknologia Zentroak eraikin berria inauguratu du

Ikerketaren erreferente

AIRE BERRIAK

CAIXA CATALUNYA SUKURTSAL BERRIA DUZU

Dendak aldak egiten dira eta zure esku itardide a Aire berriago jartzen saiatzen gara Caixa Catalunya. Horregatik, sukurtsal berria jartzen duzue zure zerbitzura.

Itan ere, Caixa Catalunya, zuzendik hurbilago itan nahi duzue.

HEMEN AURKITUKO GAITUZU:

PLAZA AITA AGIRRE, 1
20870 ELGOIBAR
(GIPUZKOA)
Tel: 943 748 520
Fax: 943 744 213

Caixa Catalunya



BISITA EZAZU GURE
SUKURTSALA,
ETA ERAMAN OPARIA.

INFORMAZIOA DIBULGATU
902 40 88 40
www.caixacatalunya.es

CAIXA CATALUNYA
Iturbide gehiago zuretzat.



TEXTIL HOGAR KOLTXOI DENDA LAGUNAK

*Etor zaitez
gure dendara
eta
aho zabalik
geldituko zara!!*

LAGUNAK

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

www.textillagunak.com

Zergatik torturatzen dute?

Euskal Herriaren kasuan tortura tresna bat da independentistei beldurra sartzeko eta informazioa zein autoinkulpazioak lortzeko. Bere burua arriskuan ikusten duen Estatu astakeria guztiak egiteko prest dago: atxiloteta masiboak, ilegaltzazioak, 18/98, tortura basatiak...denak balio du Euskal Herriari proiektu espainola inposatzeko, independentziaren aukerari ateak ixteko.

Euskal jendarteak lurraldetasuna eta autode-terminazio eskubideen aitortzan oinarrituriko al-daketa eskatzen duen bitartean, espainiar Estatuak aldiz, iruzur operazio bat diseinatu du, estatutu erreforma hutsean amaitzea nahi duena, eta horretarako bi gauza behar ditu: aldaketa horren motorra den Ezker Abertzalea zapuztea eta iruzurra gauzatzeko PNV eta NaBai-ren laguntza.

Horrela, Igor Portu eta Mattin Sarasola tortura basatien zauriak sendatzen ari ziren bitartean, Ibarretxe torturatzaileen buruekin batera, txanpan kopa hartuta, Espainiagatik brindisa egiten ikusi dugu. Espainiako Gobernuak bere morroia den PNVri exijitu zion han egotea eta torturaren inguruan Jaurlaritzako adierazpenak zuzentzea. Biharamunean Ibarretxek argitu zuen beraiek ez

zutela esan torturak egon zirenik, soilik aztertze eskaera egin zutela.

18/98ko inputatuak atxilotzen ari ziren egunean PNV - NaBai (Aralar) - EA- IUk PSOE eta PPrekin batera Madrilgo Kongresuan espainiar justiziaren kide guztiei zein indar polizial guztiei babes osoa ematen dien adierazpena sinatu zuten. Argazkia ezin argiagoa, espainiar Justiziaren bidegabekeria guztiei zein errepresioaren adierazpen guztiei babes osoa ematen eta polizia-bidearen aldeko hautu argia adierazten dutelako. Alderdi horiek independentismoaren aurka aritzeko txeke zuria eman diote espainiar Estatuari. Beraien ordezkariak ere kondenatzen dituen Estatu berari. Horregatik torturatzen dute!

Juan Karlos Markos



Bere burua arriskuan ikusten duen Estatu astakeria guztiak egiteko prest dago... denak balio du Euskal Herriari proiektu espainola inposatzeko.



INAUTERIEKAKO ERRETRATU LEHIAKETA

Inauterietako argazkiak sarituko ditugu

- 1. saria: Gabi jatetxean bi lagunentzako afaria.*
- 2. saria: Zumaiako Zelai Talaso hotolean bi lagunentzako zirkuitoa.*
- 3. saria: Atsedean Kiromasajea zentroan bi orduko tratamendua.*



www.elgoiBARREN.net



Julian Iantzi

Telebistako aurkezlea

Autoan Madrilera zihoala hitz egin genuen telebistako aurkezle ezagunarekin. “Aditzen baduzu emakume ahotsa, GPS-a da”, dio naturaltasun osoz. Irunen bizi da familiarekin, baina urte erdia pasatzen du etxetik kanpo. Patagonian lasaiago ibiltzen da Madrilen baino. “Madril ez dut batere a-tsegin. Ez dut nire burua hain bakarrik ikusi hainbeste jendetzarekin sekula. Bertze mundu bat da”, aitortu du. Gustura dabil batean eta bestean. Pozik bizi da.

Andoni Iturbe

“*Brainiac* izan da orraztuta atera naizen saio bakarra”



Kaixo Master Brainiac...

Kaixo, aspaldiko. Orain Master Brainiac deitzen didate. Jendeak telebistako azken lanarekin lotzen nau.

Nork esan behar zizun Madrilen lanean bukatu behar zenuela?

Hainbertze gauza gertatu zaizkit bizitza honetan! Nork esan behar zidan niri telebistan lana egin behar nuenik? Ezin naiz kexa.

Lehen ere jaso zenituen han lan egiteko eskaintzak?

Bai, baina proiektuak ez zitzaizkidan gustatu. Nire lana zatikatu egin dut. Hasi nintzen euskaraz, gero gaztelaniaz eta euskaraz, eta orain bi kate eta bi hizkuntzatan...

Hurrengo ingelesez...

Nik ingelesez perfektu aditzen dut, baina hitz egin, deus ez. Zazpi urterekin etorri nintzen Ameriketatik eta ingelesa galdu egin nuen.



***Brainiac*-en, gomina eta guzti, beste bat dirudizu...**

Brainiac izan da orraztuta atera naizen saio bakarra. Nire burua beste modu batera ikusteko aukera izan dut.

Itxura, irudia, oso garrantzitsua da telebistan...

Bai, baina nik ez diot hainbeste garrantzirik ematen. Nahiago dut ahalik eta hobekien komunikatu eta nire istorioa kontatu. Looka telebista saioak aukeratzen du. Ikusi ninduten nahiko look surferoa nuela. “Te van a confundir con el de *Bricomanía*”, esaten zidaten.

Zuri buruz idazten dena irakurtzeko ohiturarik baduzu?

Tarteka sartzen naiz eztabaidaguneetan, baina ez gehiegi. Oso iritzi pertsonalak dira. Klean zer pentsatzen duten garrantzitsua da eta zuzendariak ere saiatzen dira zure irudia zaintzen.

Oiarzabal, Korta... ondoan edukita, zora-zen hasita zaude?

Aspaldidanik nabil nahiko erotuta. Aipatu dituzunak jatorrak dira. Betidanik egin dut kirola, eta beti ibili naiz lehiaketetan. Garbi dago lehiaketetako egoera oso gogorra dela, eta are gehiago aurkezle ilehori batek gehiegi zirikatzen baditu. Ulertzen ditut beraien erreakzio eta haserreak. Ni ere oso lehiakorra naiz.

Aurkezle hotza zarela diote batzuek...

Nik ezin dut inoren alde parterik hartu. Galdetzen didate zergatik ez ditudan gehiago zaintzen. Ni ez nago hor jendea laguntzeko, ezta kontrakoa egiteko. Istorio bat kontatzeko nago eta etxekoan jakin-min hori asetzeko. Ez naiz Patagoniara ez lagunak ez etsaiak egitera joaten.

Froga gogor horiek egiteko gai zara?

Basetxea eta *El Conquistador*...saioen hariara esaten zidaten: "Zuk probak eginarazi bai, baina ez zaitut ikusten probak egiten". Horiek baino gogorragoak egin izan ditut eta *Brainiac*-en argi utzi dut probak egin behar direnean, egiten ditudala.

Jendeak zer nolako harrera egiten dizu?

Oro har jendeak ongi tratatzen nau, etortzen dira agurtzera, sinadura eske... Kritika txarrek ere laguntzen dute zure lana hobetzen.

Nola prestatzen duzu zure burua fisikoki?

Betidanik egin izan dut kirol asko. Egin dut denetarik, lehian ibili izan naiz esku pilotan, eta futboleko hirugarren mailan.

Zein taldeetan?

Egon nintzen Real Unionen, eta Beti Gazte eta Hondarribian, preferente mailan. Egun denetarik egiten dut: pala, spinning, aerokick (kick boxing eta aerobic nahasturik), Futbol 7, rappela...

Ez zara geldirik egoten, alabaina...

Etxean nagoenean, gutxienez lau egun erabiltzen ditut kirola egiteko.

Arriskutik gertu askotan egon zara?

Behin, *Brainiac*-en 10.000 metrotik egin

nuen salto paraxutan eta hasiera-hasieratik arazo bat izan nuen. Belarrietan dagoen haizea bota behar da, submarinismoan ere gauza bera egiten da. Bestela urduri jar-tzen bazara, tinpanoak lehertuko dituzu.

Zer pasatu zen?

Betaurrekoak pixka bat kendu eta maskara igo nuen, baina hor badago arriskua begiak galtzeko.

Gorputza aseguratutik daukazu?

(Kar-kar) Hobe dut ez probatzea aseguru hori. Beste batean, 30 metro ur azpian nintzela, ezin nuen arnasarik hartu eta ez nuen haizerik. Botilan arazo txiki bat nuen eta lagun batek konpondu zidan.

Familia gaixoa. Zer dio familiak zure lanaren inguruan?

Nire amarentzat dena egiten dut ongi, eta Jorge Fernandezekin lan egin nuenean esaten zuen: "Si es igual de majo que Jorge". Nire andreak badaki kritikatzeko. Nahiko begi ona du horretarako.

Eta alaba txikiak?

Zaharrenak bederatzi egingo ditu eta txikiak, hiru. Txikiak *Brainiac* bakarrik ikusten du. Kanpoan hainbeste denbora pasata, ikusten ninduen telebistan. Saia-tzen gara marrazki bizidunak ere ikus di-tzan. Aita bezain burugogorra denez, ez dio telebistako *mandoa* inori ematen.

Eskolan ere ezaguna izango da...

Berak dio ezaguna aita dela, ez bera. Ni ere saiatzen naiz erakusten nire lana lan mota bat dela, ez naizela ez gehiago ez gutxiago.

Nire lanak ez du inolako garrantzirik. Jendea entretuten ari naiz eta ez dago besterik.

Jendeak ondo pasatzeko, zuk ere ongi pasatu beharko duzu, ezta?

Bai, ni saiatzen naiz egiten ditudan lan guztiakin gozatzen. Hori izan zen eman zidaten lehen aholkua. Beti saiatzen naiz giro ona edukitzean nire alboan. Errieta bota behar denean bota egin behar da eta jaso behar du-danean jaso.

Nor naizen...

- **Basetxea:** "Ez dakit zehazki jarraituko duen, baina ez litzateke harrizkoa izango. Orain arte egin ditugun zortzi edizioek funtzionatu dute".

- **Brainiac:** "Madrilgoa onartu nuen momentu horretan ETBn lanik ez nuelako. Haiekin hitz egin nuen, eta ez zen arazorik egon".

- **Madril:** "Metroan ederki lasai ibiltzen naiz eta erabiltzen dut asko. Nire lankideek eta lagunek autoa erabiltzen dute. Beste mundu bat da. Lanean gustura nabil han. Jende jatorra da, baina nahiago dut lasai-lasai bizi".

- **Papera:** "Jendeak uste du telebistan agertzen diren modukoak direla aktore eta aurkezleak. Ni nire paperean nago. Bizitzan gertatzen da eskua eman ete besoa har dezaketela eta, pentsa, kinka larrian zaudela ere hori pasatuko da. Lehiakidea oso gaizki badago, etxera joan liteke".

- **Amerika:** "Ameriketako Estatu Batuetan jaio nintzen eta zazpi urterekin etorri nintzen. Garai hartan euskaraz eta ingelesez bakarrik nekien".

- **Hastapenak:** Informatikaria zen lanbidez, telebistan lanean hasi aurretik. ETBrentzat egindako lehenengo lana miss-en gala bat aurkeztea izan zen. Harrezkeroztik, ez zaio lanik falta izan. *Basetxea*, *Begiak gose*, edo *El conquistador de fin de mundo* aurkeztu ditu. *Brainiac* saioa izan da Madrilan egin duen lehenengo. Britainiar lord baten itxura jarri zioten, baina berak ontzat eman zuen. Bigarren denboraldi honetan ez du hain look zehatza izan. Madrileren saioa grabatzera bakarrik joaten da.

“Nik ulertzen ditut lehiakideen erreakzio eta haserreak. Ni ere oso lehiakorra naiz”



IDEKO ERAIKIN BERRIA ETA ILUSIOEN IKERKETA

Ideko teknologia zentroak punta-puntako eraikina inauguratu berri du. Erreminta-makina sektoreko enpresa aintzindariak etorkizuneko erronkei aurre egin nahi die 3.000 m²-ko instalazio berriein. Inaugurazio-ekitaldian izan zuen bere historiako egunik aipagarriena, Ibarretxe lehendakaria eta erakundeetako ordezkarien bisitarekin.

Andoni Iturbe

Ideko 1en parean Ideko 2 dago. Iragana eta etorkizuna. 1986an sortu zeneetik, etenik gabe hazten joan da teknologia zentroa eta garai eta erantzukizun berriei bere tamanaiko eraikin baten bidez erantzun die. Idekon lan egiten duten langile askok euskaraz hitz egiten dute baina ingelesa da negozioetarako hizkuntza. *Ideko Research Global*-en atzean 96 lagun daude eta mundu osotik etorritako bezeroak. Dituen hamalau bezeroetatik bost azken hiru urteotan lortu ditu.

Iñigo Barrenetxeak bederatzi urte daratza Idekon. Ez omen du Ideko 2ren inaugurazioa ekitaldia sekula ahaztuko. IMHn modulu bat egin ostean hasi zen lanean eta egun mantentze-lanen arduraduna da. “Hasi nintzenean 35 lagun ginen. Nirekin batera jende gazte asko sartu zen, ingeniariak batez ere. Herriko gutxi daude”, adierazi du. Badaki lan asko egin behar dela, ekoizpenak ezin duelako gelditu.

Idekok bost milioi baino gehiagoko aurrekontua du eta Europan 30 proiektutik gora gauzatu ditu. Bikaintasuna bilatzen du eremu guztietan eta helburu horrekin egiten dute lan. MCC taldeko makina-erremintako kooperatibek orain dela urte asko kanpora atera behar izaten zuten, eta orain atzeritik joaten dira Danobatera laguntza eske. Fabrikazio teknologietan liderra den zentroa da Ideko.

Idekoko laborategiko lanak jendearen egunerokotasunean eragin zuzena du

Ideko Danobat eta MCCko partaide da eta IK4 (Ikerlan, Tekniker, CEIT, Vicomtech, Cidatec eta Gaiker) taldearen bultzatzaile. Manufakturen fabrikazio teknologietan oinarritzen da, muturreko zehaztasuna topatzen duten punta-puntako laborategiekin.

Egunerokotasuna

“Demagun energia sektoreak, zehatzago sektore eolikoak, erreminta-makinarekin zerikusia duela. Orduan bertako pieza batzuk mekanizatu egin behar dira teknologia zehatz batekin, eta ikusi behar da gure makinak zerbait berria eskain dezaketela ala ez, pieza horiek azkarrago eta hobeto egiteko. Azterketa bat egiten dugu gure makinak egokitzeko”, adierazi du Ibon Serrano ingeneritzako proiektu buruak. Laborategiko lanak jendearen egunerokotasunean eragin zuzena du, zapahtillan plantilletatik helikopteroen turbinetaraino.



Ibon Serrano

Ingeniaritzako proiektu burua

“Mendebaldean daukagun aukera berrikuntza da, harridura sortzea”

Zein da zure lana?

Sailera datozen proiektuak ikertu. Merkatu berriak aztertzen ditugu, eta teknologia ildoak jarraitu.

Jendearen egunerokotasunean zer eragin izan dezake Idekok?

Idekok ez ditu egiten kontsumorako produktuak, baina lor dezake produktu horiek merkeago edo hobeto egitea, lantzen dituen teknologia aurrerapenen bitartez. Idekoren helburua da fabrikazio teknologia ikertzea, hobetzea eta berriuntzak sortzea.

I+G gero eta garrantzitsuagoa da egun

I+G (ikerketa eta garapena) herrialde aurreratuen erronka da. Produktuak merkeago egiteko gai dira beste herrialde batzuk.

Txina, adibidez...

Lortuko dute produktua merkeago egitea. Prest daude lan bera soldata baxuagoekin egiteko. Mendebaldean dugu aukera berrikuntza da. Modan dago berrikuntza, egon behar dugulako produktu berriein jendeari harridura sortzen.

Jende gaztea dago zuen artean?

Saileko nagusia naiz.

Talde dinamikan eragingo du, ezta?

Bai positiboa da. Idekon jende gaztea dago. Giro ona sortzen da, lana egiteko gogoarekin.

Ingeniaria jaio ala egin egiten da?

Gehienak egin egiten dira. Nire interes ildoak ere lantzeko moduan nago Idekon. Lan interesgarria da.

Bezero bakoitzak eskakizun propioak ditu, piezak zehazteko, txikitzeko edo moldeak aldatzeko. “Ez da produkzio lantegi bat. Probak egiten dira, bezeroei erakutsi eta prozesuak hobetu”, gaineratu du Serranok.

Muturreko zehaztasuneko makina horiek (fresatzeko makinak, arteztekoak edo tornuak) pieza bakoitza landu eta lortu nahi den helbururako prestatzen dute. “Tren bateko gurgila da hori. Fundiziotik etorri da eta distira eman behar zaio. Tornuan hasten da pieza bueltak ematen, sartzen dira hainbat erreminta eta joaten dira txiribak ateratzen, keramikaren antzera. Buztinarekin konformatu egiten da; hemen kendu egiten da”, azaltzen du Serranok.

Idekok hiru espezializazio ildoren inguruan antolatu du bere jarduera: adimen lehiakorra, berrikuntzen kudeaketa eta produktuen bizitza zikloaren kudeaketa.

Adimen lehiakorrek zuzendaritza taldeei erabaki estrategikoak behar bezala hartzeko behar duten informazioa ematea du helburu.

Ikerketa-jarduera

Ikerketa jarduerari eusteko, Idekok inbertsio handiak egin ditu. Hainbat tailer, eta laborategi ditu eraikin bien artean banatuak, probak eta saiakerak egiteko. Ultradoitasuneko laborategian erantzuna eman nahi izan zaio gero eta pieza doia-goak, zehatzagoak, fabrikatzeko eskakizunari. Ultradoitasunaren esparruan, Idekok ez ditu miniaturak bakarrik egiten, makro produktuez ere arduratzen baita.

Piezen fabrikazioaren baitan, piezak neurtu eta egiaztatzen dituzte. Hitzarmena dute munduan doitasunezko optika eta metrologia alorreko liderrarekin. Elgoibarko Idekok argi ditu bere helburuak.

SEKTOREA

Energia, tren, aeronautika, automozioa eta ondasun ekipoak. Erreminta-makinan eta fabrikazio teknologietan espezializatuak. Kualifikazioan, argitalpenetan, doktoretza tesietan, proiektu europarretan... egiten du lan.

HISTORIA

1986an zentro teknologikoa sortu zen. 1990ean, berriz, eraikin propioa eta prototipoen tailerra egin zuten. Bi urte geroago, lehen proiektu europarra (SINTOMA) gidatu zuten. 1997an Teknologiarako Euskal Sarean sartu ziren eta Berrikuntza Teknologikoko Zentro izendatu zuten.

BEZEROAK

Danobat zorioneko da. Orain arte Lufthansak bizkarra eman izan dio, Alemaniako enpresak babestu nahian. Gaur egun munduko hegazkin konpainia guztiekin lan egin du, Lufthansa barne. Euskal Herriko erreminta-makinaren lorpena ikusgarria da eta mundu osoan lehen lerroan dagoela argi laga du.





BARENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Energiaren arazoa: Negozioaren arazoa (II)

Nafarroaren kasuak argi erakusten du egungo politikariaren interesa. Eolikoen inpaktu bortitzak Nafarroa ia-ia autosufizientea izatera eraman zuen arren (Europa osoan eredu), ondoren, Castejon-eko zentral termikoak eraikitzearekin erakutsi dute elektrizitatea negozio hutsa dela, soberakinak nahita sortu baitituzte inguruko herrietara saltzeko.

EAEn ere gauza bera egin nahi dute, soberakinak sortu, jendea gehiegi kontsumitzera ohitu ondoren betikoek poltsikoak bete ditzaten. Baina horrek desoreka soziala gain biziraupena mugatzen du! Baina zein da energiaren arazoari irtenbidea?

Batzuk diote Nuklearra dela denetan errentagarriena eta negutegi efektua gutxien eragingo lukeena, baina batetik inguruko herrietako minbizi tasa altuek (umee-tan leuzemia kasuak eta nagusietan bularretako minbizi kasuak Garoñan), eta bestetik istripu nuklearrak edo 40 urtetako funtzionamenduagatik 10.000 urtetan erradiazioa emango duten hondakinak kontrolpean edukitzeak daukan kostua jasanezina da etorkizuneko gobernuentzat (kostu hori enpresek jasango balute!). Baina gauzek horrela jarraituz gero, laster baino lehen izango dugu berriz nuklearren mehatxua Kyotoren aitzakiaz.

Beste batzuk diote energia berriztagarriak direla etorkizuna, baina karakateko kultur ondarearen gaitetik? Mutrikuko saiakerak ere argi utzi du energia berriztagarriak ere baduela bere kostua, bestela

galdetu inguruko herrietako biztanleei. Gauza bat argi dago, ez dagoela energia sortzeko era garbirik. Beraz, kontsumoa jaisteko neurriak hartzen ez badira, etorkizun beltza datorkigu gainera.

AHTez Elgoibar ☺

Suspentsio eta ilegalizazioen gaitetik

Ez da urruti EAE-ANVren ekinbideen suspentsioa, EHAKrena berdin. Herri honi bere eskubideak onartu ordez, PSOEK errepresioan sakontzeko apustua egin zuen, eta horretan ari da, hauteskondeei begira, etekina atera asmoz. Edozer egiteko prest dagoela argi utzi du: 18/98+, mahai nazionalaren espetxeratzea, torturak, Segikoak izateagatik atxilotutako gazteak, alderdiak legez kanporatzea... Hori guztia ez litzateke posible izango PNV, NaBai eta baita EA, IU eta Aralarren laguntzarik gabe. Horiek guztiak alderdien legearen aurka daudela diote, baina euren jokabidea zein den agerian dago aspaldi. Ez dagozkien zinegotzi postuak bueltatzeko bideak badaudenez, berauek martxan jartzea izan beharko litzateke alderdien legearen aurka dagoenaren lehenatasuna. Elgoibarren, aldiz, PNVk ez dagozkion bi zinegotziri esker dauka alkatetza. Hori gutxi balitz, Ondarroan ez zegozkien postuak hartzeari uko egin zioten alderdikideak alderditik bota egin zituzten. Alderdien legearen aurka egiteko modu bitxia benetan. Hauek, beti bezela, zurikeritan maisu.

Hauteskunde giroa nabaria da, baina zerbait gehiago ere badela erraz antzeman daiteke. Aldaketa garaia iritsia da gurera. Gaur egungo markoa agortuta dago, ez ditu herri honen behar eta nahiak asetzen. PSOE, PNV eta NaBaik ordea, konstituzioaren barnean ito nahi gaituzte, iruzur berri baten bidez. Gatazkara kondenatu nahi gaituzte, herri honen eskubideen alde egin beharrean, errepresioa eta konstituzioa eskainiz. Herri honek aspaldi esan zuen ordea erabakiak bere esku behar duela. Horregatik diogu arazoa ez daukatela ezker abertzalearekin, herri honekin baizik. Lehenago edo geroago horrela izango da, horren aurka errepresioa bide antzua dela jakin badakite eta.

Joan zen Udaberriaren konpromisoa hartu genuen herri honekin, bere eskubideen alde eta konponbide demokratiko baten alde egiteko. Garai gordinak dira, baina bidea argi daukagu eta konpromisoa berretsi egiten dugu. Errepresioak, ilegalizazioek eta abarrek ez gaituzte gure bidetik aterako; lanean jarraituko dugu. Konstituzioa eta ukazioaren aurrean, marko demokratikorako proposamena eskaintzen diogu herri honi. Inork hoberik badauka, proposa dezala. Jendarteari dei egin nahi diogu guzti honen aurrean geldirik ez geratzera eta etsipenean ez erortzera. Martxoan, independentziaren aldarriarekin hautesontziak beteko ditugula dudarik ez egin.


Elgoibarko EAE-ANV ☺

Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Anjel Ugarteburu

Badituk hamabost urte **BARREN** kaleratu zenetik. Hi heu eta neu ere tartean gintuazan lehen urrats haietan. Denborak ihes egiten jok, urak eskuartetik bezala.

Bajagok, hala ere, ihes egin ez duen emaitza eder bat. Euskara eskolan ikasterik izan ez duten askok lortu juek, **BARREN**i esker, euskara idatzia irakurtzeko erraztasuna. Ez deritzok, Andres? Nik neuk hala ikusi juat etxean bertan. Ez al dok nahikoa meritu? Ur tantaren oihartzunera ohitu egiten gaituk eta, azkenean, ontzia beterik dagoela ohartu ere ez. Baina bai; ontzi asko bete jok, barren!

“Botila erdi beterik ikusten juat, osasunarentzat ere hala hobe dok eta”.

Gazteagoek egingo juek hurrengo etapa, horretan jihardutek. Poz horrek emoten jostak egunero egunari ondo etorri alaia egiteko gogoia. Botila erdi beterik ikusten juat, osasunarentzat ere hala hobe dok eta.

Ni neu jubilatatu ninduan, bai, baina gauzak ez dituk asko aldatu. *Ni ez narabil erlojuak, erlojua neuk darabilt,* esateko ohitura jeukan Txominek. Horixe duk, jubilatuaeren alde: erlojuaren morroi ez izatea. Eguna hasi eta nahi dena (askotxo esatea ez ete?) egiteko aukera. Lasaiago bai, behintzat. Inguruan gertatzen diren injustizia eta nahigabeek ere gehiago erasaten juek, dena dela. Lehen egunero lanean urtzen zituan ale mingotsak urtu barik geratzen dituk hortxe, traban, irentsi ezinean. Ez jok merezi, baina, azaleko kontuekin umorea galtzeak. Haizeak eramango jituk orbelak, eta *barrena* hor geratuko dok, ondo egindako lanaren lekuko.



Andres Alberdi

Bazetozek bi frailekume hauek!, pentsatuko ditek hi eta ni berriro ere **BARREN**en ikustean. Eta arrazoi faltarik ez. *Bi pope hauek zer esan behar ote digute?*

Kezka horrekin abiatu nauk lerro hauek idaztean: asmatuko ote dugu zerbait gozagarri edo kitzikagarri esaten? Jendearen usteari erantzungo ote? Ezer berririk plazaratuko ote? ...

Kezka horri beldur ere dei diezaiokek, nahi baduk. Gezurra badi-rudi ere, edadean aurrera, lagunartean berriketan gustura egoten bainaiz ere, gero eta erreparo handiagoa diat, gero eta nekosoagoa egiten zaidak jende piloari gauzak kontatzea, jendeari ezer esatea, jendearen aurrean bozeramaile agertzea...

Baina **BARREN**ek (“emaitza eder” hire hitzez) horrenbeste merezi dik, horrenbeste behar dik oraindik, eta nik ere, hi bezala jubilatuta egon ez arren, botila erdi beterik ikusi nahi diat, eta gauzak kontatze-ko adorea ere hartu nahi diat, eta, horrenbestez, **BARREN** bitarteko hartu ere bai *barrenak* husteko, lotsak lotsa eta errezeloak errezelo.

“Euskal Herria oraindik ere gurpil zoro gisa ikusteak kezkatzen naik”.

Hona nire lehen kezka: “Gauzak ez dituk asko aldatu”, diok heurrean. Hitz egiteko modua baino ez duk hori, noski. Horixe aldatu direla! Hoberako? Txarrerako? Gauza batzuetan, onerako, noski; baina horiek ez naitek kezkatzen. Euskal Herria, 2008ko urtaril bukaeran, oraindik ere gurpil zoro gisa ikusteak kezkatzen naik: atentatuek, presoek, euskaltzaleen kartzelaratzeko masiboek, giza balioen ahuleziak, emakumeen aurkako bortizkeriak, gizartearen Amerikartzeko itsuak, torturek... Izango ahal diagu horietaz hitz egiteko abagunerik!



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Txutxumutxuen erreferentea izan den *Aqui hay tomate* saioa kentzea erabaki du Telecincok.

Txutxumutxu programak ikusten dituzu?



Andoni Gabilondo

20 urte, ikaslea

Ipinita badago bai, baina ez naiz zalea. Arratsaldeetan ez dago besterik. Ez dut telebista saio askorik ikusten. Ez dit penarik ematen *Aqui hay tomate* kentzeak. *Reality* gutxi ikusten ditut.



Marta Garcia

22 urte, langabetua

Ez ditut ikusten, ez zaizkit interesatzen. *Los Serrano* atsegin dut. Portugalekoa naiz eta iruditzen zait txutxumutxuen saio gehiegi daudela. Famatuak gehiegitan irteten dira.



Maria Boyer

36 urte, dendaria

Noizean behin. Ez naiz saio horiek egun osoan ikusten dituen horietakoa. *Tomate*-n ez dute inor errespetatzen. Dokumentalak, albiste-gegiak eta pelikulak gustura ikusten ditut telebistan.



Edurne Ziganda

34 urte, komertziala

Nire ama zale amorratua da; ni ez hainbeste. Ez nekien kendu behar zutenik, baina ez zait ondo iruditzen. Ondo pasatzen nuen. Azken aldian ez dut telebista ikusteko denborarik.

10^{eko}
TXIKIAN



ALATZ
LIZARRALDE

Komertziala

1. Herriko txokorik zatarrena?

Gure etxe parean dauden teilatuak zatarrek dira. Polikiroldegi ondoko etxe berri horietan batzuk txukun-txukun daude, baina besteak ez.

2. Zer falta zaio Elgoibarri? Eta zer dauka soberan?

Umeentzako leku gehiago falta zaizkio. Parkeak badaude, baina ez dago lekurik gurasoak umeekin lasai egoteko. Soberan ez dago ezer. Denak da beharrezkoa. Gauza gehiago egin beharko liriateke.

3. Azken aldian egindako obretatik, zein gustatu zaizu gehien?

Merkadillo berriko obra. Niretzat oso ondo geratu da, eta merkadilloa hobeto dago.

4. Nolakoak gara elgoibartarrak?

Ni ez naiz elgoibartarra. Errenterian jaiotzen. Zortzi urterekin etorri nintzen. Lehenengo inpresioa oso txarra izan zen. Asko kostatzen da Elgoibarrera egitea. Hemengo euskara itxi xamarra zen. Errenteriako euskara da batuaren antza gehien duena.

5. Zein da elgoibartarrik famatuena, zure ustez?

Nire aita, Koldo Lizarralde idazlea.

6. Aukeratu egun bat, lagun bat gure herrira gonbidatzeko...

Igandea. Larunbata ez zait gustatzen. Gabon Zahar feriara etortzen dira nire Errenteriako lagunak.

7. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?

Ez. Depuradura badago, baina bainatzea zientzia fikzioa da.

8. Aukera nahikoa dago Elgoibarren kirola egiteko?

Ez dut kirolik egiten, igeriketa izan ezik. Gazteentzako aukera gehiago falta da. Gustatu zitzaidan Gabonetan jarri zuten patinatze pista.

9. Elgoibar nolakoa den galdetu dizu kanpotar batek.

Herri polita da. Badauka bere enkantua baina ez ditu gauzak zaintzen. Zapatuko giroa jaitsi egin da. Lehen desastre hutsa zen. San Frantzisko kalean bizi nintzen eta, zapatu gauetako giroa zela eta, aldatu nintzen. Orain lasaiago bizi naiz.

10. Behar duzun guztia daukazu herrian?

Ez. Baina hemen jarraitzeko asmoa daukat.



IMHko aparkalekua txiki geratu da: “Basar-teko auzokide bat naiz eta aspertuta nago-en egoera bat salatu nahi dut. Gure auzoan jendeak edozein modutan eta lekutan aparkatzen du autoa, errotonda eta espaloiak ere, ez dituzte errespetatzen. Autoa kabitzen den edozein leku erabiltzen dute aparkatzeko, eta horrela ezin da. Asteburuetan ez da arazorik egoten, baina astean zehar lanetik etxerakoan ezin izaten autoa aparkatu. IMHko aparkalekua txiki gelditu da. Ikasle eta irakasle asko joaten da autoan bertara eta gure auzoa erabiltzen dute autoa lagatzeko. IMHri eskatuko nioke aparkalekua handitzeko, baina bitartean udaltzainek egoera hori kontrolatu egin behar dutela iruditzen zait”.



Motoentzako aparkalekua egon arren, autoentzako lekuan aparkatzen dute batzuk: “Aparkaleku gutxi daukagu eta dauzkagun apurrak kendu egiten dizkigute! Motoentzako sekulako aparkalekua dago San Frantzisko iturri inguruan eta beti hutsik dago. Nire ustez, auto bat gehiago sar zitekeen hor, baina ondo iruditzen zait motoentzako lekua egitea, horiek ere behar dituzte aparkalekuak. Ezin dut ulertu motoek autoen lekuan aparkatzea; onartezina da. Dena beteta egongo balitz ulertuko nukeen, baina argazkiko egunean hutsik zegoen. Udaltzainak hor inguruan ibiltzen dira bueltaka aparkatzeko denborak zaintzen, baina moto horri ez zioten isunik jarri. Aparkalekuak errespetatu egin behar dira”.



Zorionak eta txalo bero bat Ongarri Zine Klubari: “250 pelikula! Hori da marka! Lan bikaina egiten duzue, benetan. Zine zale amorratua naiz eta zine komertzialetik aparte, bestelako filmak ikustea izugarri gustatzen zait; gehiago gustatzen zaidala esango nuke, eta Ongarri Zine Klubak beste lekuetan ematen ez diren pelikulak ikusteko aukera eskaintzen dit. Gutxitan huts egiten dut ostegu-



Urasanditik Pilar ikastetxera doan bideak denbora mor-doa darama itxita: “Aspaldi itxi zuten Urasanditik Pilar Ikastetxerako bidea eta oraindik ez dute zabaldu. Badi-rudi harri batzuk erori zirela ingurune horretan eta arriskutsua zelako itxi zutela bidea, ezer larririk ez pasatze-ko. Baina nik uste dut egon dela hori konpontzeko denbora nahikoa. Udalarari eskatu nahi nioke ahal duen azkarren konpontzea egoera hori, izan ere, Urasandiko auzokideentzat bide eroso da eta erabiltzen gauen. Pilar Ikastetxeko ikasleentzako ere oso erabilgarria da eta eskertuko genuke bidea berriz zabaltzea”.



netako zitan. Elgoibarko Zine Klubak daukan meritoa sekulakoa dela iruditzen zait. Ahalegin eta lan handia egiten duzue eta hori eskertzekoa da. Jarraitu bide horretatik, ondo zoazte-eta! Ea noiz ikusten dugun Herriko Antzokia jendez gainezka eguen gau batean, gustatuko litzaidake. Hala ere, herriarrek badakite egiten du-zuen lana saritzen. Gero eta gehiago gara eguenetako hitzordua betetzen dugunak.”



Eragin nabarmena izan zuen Osakidetzako grebak Elgoibarko anbulategian eta Mendaroko Ospitalean

Gutxieneko zerbitzuak eta larrialdiak errespetatu egin ziren

ELA, SATSE, LAB, CCOO, ESK, EUTESE, UGT eta SAE sindikatuek deituta, 24 orduko greba izan zen martitzenean Osakidetzako zentroetan. Sindikatuek emandako datuen arabera, grebaren eragina nabarmena izan da zentro guztietan: Mendaroko Ospitalean esate baterako, grebak %90eko eragina izan zuela esan digu ELA sindikatuak. Euren esanetan “mugimendu gutxiko eguna izan zen Mendaroko Ospitalean”. Gorka Sarasola Ospitaleko gerenteak ere grebaren eragin nabarmena azpimarratu zuen, baina kontsulta gehienek normaltasunez funtzionatu zutela gaineratu zuen: “Erizainik ez da egon, baina medikuek kontsulta gehienak normaltasunez burutu dituzte. Kirofanoetan igarri da, batez ere, grebaren eragina”. Gutxieneko zerbitzuak eta larrialdiak errespetatu egin ziren.



Elgoibarko osasun zentroa

Elgoibarko osasun zentroan %100eko eragina izan zuen grebak, ELAko datuen arabera. Gutxieneko zer-

bitzuak eta larrialdiak bakarrik egon ziren martxan. Osasun Zentrora deitu dugu datu hori kontrastatzeko, baina ez dugu erantzunik jaso.

Kolonbiako hogeit hamar ikasle egongo dira martxora arte Elgoibarko Institutuan eta IMHn



Eusko Jauriaritzak eta Alecop enpresak martxan jarritako programa bati esker, Kolonbiako hirurogei ikasle etorri dira Euskal Herrira eta horietako hogeit hamar Elgoibarren izango ditugu martxora arte.

Elgoibarko Institutuan eta IMHn jasoko dute formazioa. Hogeit hamar urte inguruko ikasle horiek Lanbide Heziketa alorreko eskolak jasoko dituzte. 400 orduko ikastaroa

izango da eta teoriak gain, praktikak ere egingo dituzte. Kontrol numerikoa, CAD-CAM edo teknologia mekanikoa landuko dituzte, besteak beste.

Formazioarekin batera, Euskal Herria ezagutzeko aukera ere izango dute. Antolatzaileek hainbat irteera prestatu dituzte, kolonbiarrek Euskal Herria gertutik ezagutu dezaten.

Pertsonaia **Xabier Mujika**



Xabier Mujika elgoibartarra izan da 2008ko bizkorrena, berak irabazi baitu IMHk antolatzen duen Azkarrena jolasa. 2.481 lagunek eman dute izena aurtengo lehiaketan. Parte hartzaileak Euskal Herriko hainbat herrialdetakoak izan dira eta Burgosetik eta Kolonbiatik ere parte hartu dute. Argazki eta bideoak egin eta www.azkarrena.com web gunean jarri behar izan dituzte partehartzaileek. Xabier Mujikak jaso ditu boto gehien, eta ondorioz irabazlea izan da. IMH Egunean egin zen sari banaketa.

Zenbakia **697**

Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak 697 odol poto eraman ditu 2007an Gipuzkoako Odol Bankura, 2006an baino 69 poto gutxiago, hain zuzen ere. 2003an 809 poto jaso ziren, baina ordutik odol emaien kopurua gutxitu egin da pixkanaka. Jesus Castañares, Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteko presidentek odola ematera animatu nahi ditu herritarrak, "ahalegin txiki batekin lortu daitekeen onura garrantzitsua bakarrik ez, ezinbestekoa da hainbat operazio eta tratamendutarako". Jende gaztea animatu nahi du, batez ere, Odol Emaileen elkarteak.

Txokoa **Kultur Etxea**

140.000 euro inguru erabiliko ditu Udalak Kultur Etxean igogailua jartzeko. Igogailua jarriko duten kokaleku zehatza erabakitzeke dagoen arren, erakusketa gelaren ezkerreko aldea jo dute begiz, leku aproposena delakoan, Udal ordezkariak. Handik, bigarren solairura arte iritsiko litzateke igogailua, egun Gazte Informazio Gunea dagoen gelaraino, hain zuzen ere. Proiektu hori hobetsiko balitz, Gazte Informazio Guneari beste kokalekuren bat topatu beharko litzaioke.



Bi elgoibartar atxilotu dituzte kobrea lapurretan egiten saiatzeagatik

Ertzaintzak bi elgoibartar atxilotu ditu Gabirian 600 kilo kobre lapurtzen saiatzeagatik. Astelehen goizaldean izan zen lapurreta saiakera Gabiriako enpresa batean. Ertzaintza ailegatu zenerako bilgailu batean kargatu eta eramateko prest zeuzkaten 600 kilo kobreak multzoka pilatuta. Ustezko lapurrak Ezkio-Itsaso parean harrapatu zituen Ertzaintzak, autoan ihesian zihoazela. Atxilotuak N.S. (36 urte) eta C.L. (26 urte) dira, biak gizonetakoak eta Elgoibarko bizilagunak. Biek dituzte aurrekari penalak.

Oinarrizko buztin ikastaroa

Lurki Zeramika Taldeak antolatuta, oinarrizko buztin ikastaroa hasiko da datorren otsailaren 4an. Astelehenetik eguenera bitartean eskainiko da, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara. Interesatuak 677466344 telefonora dei dezakete.

Alzheimerra dutenen senideentzako ikastaroa

Elgoibarko Udalak jakinarazi du Matia Fundazioak Alzheimer gaixotasuna dutenen senideentzako formazio programa jarriko duela martxan. Taldea osatzen bada, programa hori Elgoibarren bertan eskainiko da. Hamar orduko iraupena izango du eta bost egunetan eskainiko da. Interesatuak Udaleko Gizarte Zerbitzura dei dezakete: 943 741 008.

San Bartolome jaiak

Aurtengo San Bartolome jaietako Gazteen Egunerako musika taldeen proposamenak egiteko epea ireki du Udalak. Datorren martxoaren 3ra arte bidali daitezke proposamenak Kultura Zerbitzura posta elektronikoz (kultura@elgoibar.org) edo telefonoz (943 742 158).

SILVIO VAZ (Kuba)

“Kuban ia ez dut lagunik; nirekin batera ikasitako askok hanka egin dute”



La Habanan hondartzatik hirurehun metrora jaio zen, itsasoaren mailatik 400 metrora dagoen Plaentxiko Txurruka baserritik urrun. Hura izan zen bere lehen geltokia, lizentziatu bezain pronto oporretara etorri zenean. Gaur egun Elgoibarren bizi da, herrian jende gutxik ezagutzen badu ere. Beti egon da harremanetan diseinu grafikoaren munduarekin. Horixe ikasi zuen Kuban eta azken zazpi urteotan bakarrik horretan jarduteko gogor egin behar izan du lan batean eta bestean. Kuban kanpotarra da eta hemen kubatarra. Azen-tua galdu du, baina ez bere nortasuna. Burugogorra omen da.

Itxuraz, euskaldun peto-petoa dirudizu...

Denbora asko daramat hemen eta gainontzeakoak bezain beste eguzki izpi jasotzen dut. Gainera azeno mordoa galdu dut.

Txikitan oso haur bizia zinen?

Beti gustatu izan zait arkatza hartu eta marraztea. Hori bai, txikitan dibertigarria nintzen. Ikaskeketan ona nintzen, zientzietan bereziki.

Hezkuntza maila ona jaso zenuen Kuban?

Bai. Orain leku guztietan okertu da hezkuntza. Gizarteak inposatu egiten ditu zenbait aurreiritzi. Ingalaterran, esaterako, zenbait lekutan hezkuntza alternatiboa ezartzen da, eta umeak erabakitzen du zer ikasi. Matematika nahi badu, matematika.

Zer funtzio du diseinu grafikoak Kuban?

Diseinua da arazo baten irtenbidearen erantzuna.

Gizarte kapitalistetan bereziki...

Ikaslea nintzenean ez nintzen hortaz ohar-tzen. Utopia batean bizi zara, letra eta kolore artean. Teorian. Norgehiagoka asko zegoen gure artean. Kuban artista asko sortu dira eta egia da diseinadore asko kanpora joan direla.

Ona zinen?

“Finalista”: azken egunerako lagatzen nuen.

Zure ikaskide asko irten dira Kubatik?

Bai. Kubako egoera politiko eta ekonomikoak eragin du familia asko bereiztea. Kuban ia ez dut lagunik; nirekin batera ikasitako askok hanka egin dute. Hori da gogorrena.

Noiztik bizi zara diseinu grafikoa egitetik?

Duela hiru urte ingurutik. Burugogorra naiz eta lortu arte ez dut etsitzen. Laguntza batzuk eskatu eta zortea izan nuen.

Euskaraz ere moldatzen zara...

Zertxobait. Oso zaila da. Nahiko ondo ulertzen dut. Entzunez ikasi dut. AEKn ibilitakoa naiz eta lanagatik ezin izan nuen jarraitu. Ez daukat euskaraz aritzeko lotsarik. Oker egin ez ikasten da. Lehenengo aldian barre egingo dute baina bigarrenean, agian ez.



Nire herria

Kuba



La Habana Vieja, Capitolio

“Jakin-mina”

Fidelengatik galdetzen didate askok, ea zer pasatuko den hiltzen denean. Kuba sexuaren paradigma ere bada, turismo sexuala dela-eta. Kuba hori baino gehiago da. Historia polita du Kubak, Europa baino laburragoa, baina amaierarik gabekoa. Gainera oso paraje politak ditu.

“Etorkina”

Oporretara etorri eta hamaika hilabete baino lehen itzuli behar nuen Kubara, bestela etorkina izango nintzatekeen. Zigor horren arabera, bost urte bitarteko epean ezin duzu uhartera itzuli eta itzultzen bazara, atzeritar moduan joan zaitezke. Legeak bereziak dira Estatu sozialista delako.

“Inauteriak”

Kuban inauteriak abuztuan izan dira, Monkada kartelari egindako eraso ezaguna gogoan hartuz. Baina orain otsailean jarri dituzte, mundu guztian sasoi horretan egiten direlako. Kubatarrok kultura daukagu eta oso alaiak gara. Arteak garrantzi handia du eta sormenak babestu egiten gaitu egunerokotasunetik. Kulturaren gainetik beharra dago eta horrek sormena pizten du.

Euskal Herritik zer da gehien estimatzen duzuna?

Dagoen askatasuna. Jendea ere prestatu dago Euskadin.

Poteorik egiten duzu?

Ez. Rona nahiago dut.

Zelan moldatzen zara Elgoibarren?

Jende gutxi ezagutzen nau hemen. Bakarrik urtebete daramat Elgoibarren bizitzen.

“Nire familia, berez, iraultzailea da. Ni ere bai, baina bizitzan ez da dena beltza edo zuria”

Lehenengo negua gogoratzen duzu?

Abuztuan etorri nintzen Plaentxira eta gogoratzen dut arropa eta guzti sartzen nintzela ohera, edredoi artean. Azken neguak ez dira oso gogorrak izan. Baina gertatu izan zait baserritik lanera joateko aukerarik ez izatea. Lehen aldiz elurra Ingalaterran ikusi nuen, bost urterekin.

Nola heldu zinen Ingalaterrara?

Nire bizitzako lehen bost urteak Ingalaterran pasatu nituen nire aitaren lana zela-eta. La Habanan jaio eta zazpi hilabetera joan nintzen hara. Oroitzapen gutxi dut: Hyde Park, irakasleari elurra botatzea... Zumarragako portua igotzen ikusi nuen lehen aldiz elurra, kamiolari batekin nindoala. Eskiatzea ere atsegin dut.

Ingalaterran geratzeko tentaldirik izan zenu-ten?

Ez. Nire familia, berez, iraultzailea da. Ondo bizi ginen Londresen. 1982an heldu ginen

Kubara eta garai onak ziren. Jendea zoriontsu bizi zen 91ko krisi handia hasi arte. Kubak hondoa jo zuen. Asko izatetik ia ezer ere ez izatera pasatu zen.

Zu ere iraultzailea zara?

Bai, gertatzen dena da bizitza ez dela beltza edo zuria. Jende asko itota dago atera nahian, ez bakarrik prentsa askatasunagatik. Ez dut uste muturreko kapitalismoa denik irtenbidea.

Zure familiaren senitartekak nongoak dira?

Galiziakoak, Orenseko herri txiki batekoak. Caro abizena ere badut.

Ezagutzen dituzu?

Bai, nire aitak ez zuen interes askorik gure jatorria ezagutzeko eta gure izeba bat aritu zen ikertzen. Berak eman zidan nuen informazio eskasa. Joan nintzen lau etxe inguru zituen herri txiki batera, Osintxuren moduan. Ohar bat laga nuen, eta handik bi aste tera deitu zidaten. Gero euren etxera joan nintzen oporretara aste baterako. Galizia polita da, Euskadi baino gutxiago esplotatua dago.

Elgoibarren jarraitzeko asmoa duzu?

Bai, gustura nago. Nire bizitzako parterik handiena Plaentxian pasatzen dut. Han ezagutzen dut jende gehien. Oso bohemioa da; denetatik du eta ez du ezer ere.

Duela urte eta erdi egon zinen azken aldiz La Habanan. Itzulerak gogoragoak dira?

Joan nintzen lehen aldiaren itzultzea asko kostatu zitzaidan, bigarrenetan gutxiago...

Zer eskatzen dizu familiak eramateko?

Ardoa. Txorizoa ere eskatzen didate. Deberkatuta dago janaria eramatea eta behin aduanan urdaiazpikoa kendu zidaten...

Funtzionario “azkar” batek....

Beno, militarrek. Egia esan Kuban denak dira funtzionarioak.

Andoni Iturbe

Gure berbak

Aditza (3): NOR-NORI oraina

Aurreko astietan, NOR sailleko aditzak ikusi dittugu, oraiñaldikuak eta lehenaldikuak, indikatibokuak danak. Gaurkuan, NOR-NORI saillekuak batten hasiko gara; NOR-NORI edo ZAIO erako aditzak, Euskaltzaindiaren terminologian.

Hikakuetan, dakigun bezela, desberdiña izaten da gizonezkoren batekin berbetan ari geran (*Peru etorri jakuk bisitan*) edo emakumezko batekin (*Peru etorri jakun bisitan*).

Gatozen, ba, aditz-formak zein diran esatera:

- Neutruak: Txanpona jausi jata lurrera, jausi jako, jausi jaku, jausi jatzu, jausi jatzue, jausi jakue.

- Hikakuak (giz.): Txanpona jausi jatak lurrera, jausi jak hiri, jausi jakok hari, jausi jakuk guri, jausi jakuek hareri.

- Hikakuak (emak.): Txanpona jausi jatan lurrera, jausi jan hiri, jausi jakon hari, jausi jakun guri, jausi jakuen hareri.

Txanpon bat baiño gehixago jausuten badira, honek dira formak, aditzaren amaierako –Z pluralgillia debela:

- Neutruak: Txanponak jausi jataz lurrera, jausi jakoz, jausi jakuz, jausi jatzuz, jausi jatzuez, jausi jakuez.

- Hikakuak (giz./emak.): Txanponak jausi jatazak/jatanaz lurrera, jausi jaz/janaz hiri, jausi jakuaz/jakonaz hari, jausi jakuaz/jakunaz guri, jausi jakuezak/jakonez hareri.

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1949

Juanito Gorostizak ekarri digu aste honetako erretratu zaharra. 1949. urte inguruko argazkia da. Martitzen Inauteri Egunean aterata dago Doña Pakaren txalet aurrean; tren geltokira doan aldapa erdialdean zegoen Doña Pakaren txaleta.

Lau emakume hauek dotore jantzita atera ziren kalera. Gaur egungo mozeroren inbidiarik ez daukate argazkian ikusten ditugun hauek. Garai hartan oso gaizki ikusita zegoen emakumeak tabernetan sartzea, gizonezkoen gunea ziren tabernak. Emakumeak kalean ibiltzen ziren, dantzan, kantuan eta irrintziak botatzen. Bestalde, "Sasikopotzu" izenez ezagutzen zen festa ospatzen zen inauterietan. Jendeak txorizoa eta ogia jaten zuen, ardo botila batekin. Umorerik sekula ez zen falta izaten.

Ikus dezagun zein diren neska gazte hauek: Mari Luz Izagirre, Rosario Totorika, Rosario Arregi eta Mari Tere Iraegi.



I. URTEURRENA

2007ko urtarrilaren 29an hil zen **Pedro Sodupe Esnaola**ren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, larunbatean, otsailaren 2an, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.



Urtarrilan...

JAIOTAKOAK



Irene Nogales Migales
Urtarrilak 2
Jose eta Maria Carmen



Manex Sainz Ibarluzea
Urtarrilak 14
Eduardo eta Leire



Oxel Garcia Etxeberria
Urtarrilak 2
Paul eta Kristina



Aitor Garate Gabillondu
Urtarrilak 9
Iñigo eta Amaia



Uxue Altzerreka Odrizola
Urtarrilak 25
Robeto eta Lurdes



Elur Ayarza Odrizola
Urtarrilak 29
Aitor eta Edurne



Elene Carrillo Salegi
Urtarrilak 12
Pedro Luis eta Maria Pia



Laia Lopez de Sabando Ballesteros
Urtarrilak 17
Ion eta Kontxi

Luna Cristina Cardoso Ferreira
Urtarrilak 7
Eleine Cristina

Reda El Hachmi Arramdani
Urtarrilak 19
Abdeziaaziz eta Amal

Malen Hernandez Menor Urtarrilak 24
Gorka eta Miriam Ruth

Iker Eguren Gomez
Urtarrilak 11
Aitor eta Noelia

Paule Soto Orozko
Urtarrilak 19
Daniel eta Maria

Mikel Rodriguez Eugi
Urtarrilak 21
Iker eta Oihana

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidalite-postaz **barren@elgoibarkoizarra.com** helbide elektronikora.

HILDAKOAK

Jose Maria Jimenez Roldan • 69 urte • Urtarrilak 1
Araceli Txurruka Eizagirre • 78 urte • Urtarrilak 5
Juan Manuel Arce Hervias • 46 urte • Urtarrilak 5
Luis Soto Brocal • 64 urte • Urtarrilak 12
Baleriana Ulazia Muguruza • 102 urte • Urtarrilak 13
Julian Iriondo Lazarobaster • 78 urte • Urtarrilak 16
Anton Korta Bereziartua • 60 urte • Urtarrilak 17
Francisco Javier Arberas Ugaldel • 76 urte • Urtarrilak 22
Rosario Etxeandia Zabala • 82 urte • Urtarrilak 22
Agustin Arriola Urain • 78 urte • Urtarrilak 26
Miguel Ruiz Lopez • 60 urte • Urtarrilak 26
Jesus Ansola Arrieta • 51 urte • Urtarrilak 28
Katalina Irastorza Olaizola • 98 urte • Urtarrilak 29

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

ESKERTZA



2008ko urtarrilaren 29an hil zen, 98 urte zituela,
Catalina Irastorza Olaizolaren sendiak
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



RAFA ALVAREZ

Sanlo Eskubaloi Klubeko presidentea

Ez zen erraza izan iazko denboraldi amaiera Sanlo Klubarentzat, baina urak baretu egin dira dagoeneko. Senior mutilen talderik ez dago aurten, baina hamar talde osatzea lortu dute; iaz baino bat gehiago. Denboraldi amaierako tira-birak ahaztu eta aurtengo denboraldian murgilduta dago Sanlo Elkartea. Rafa Alvarezekin egon gara Elgoibarko eskubaloitari buruz berbetan. Informazio gehiago: www.sanlo.net

“Datorren denboraldirako senior mutilen taldea berriz sortzeko itxaropena daukagu”

Zelan doa aurtengo denboraldia?

Orain arteko balorazioa positiboa da. Jende gazte asko dabil gure taldeetan jokatzeko eta, gainera, herri diferenteetakoak dira, baina oso ondo moldatzen dira. Kadete neskek Gipuzkoako txapelkun gelditu dira eta Euskadiko txapelketan lehenengo bi postuetako bat lortzen badute, Espainiako txapelketara joango dira. Eskertzekoa da entrenadoreak, delegatuak eta zuzendaritzakoak egiten ari diren lana, eta baita babesleek ematen dizkiguten dirulaguntzak ere. Udala eta Kirol Patronatua, bestalde, arazoak konpontzeko prest agertu dira.

Zenbat jende dabil eskubaloian Elgoibarren?

Senior mutilen taldea desegin bada ere, hamar talde daukagu kategoria diferenteetan banatuta, iaz baino bat gehiago. Nesken sei talde eta mutilen lau talde ditugu. Bailerako jendea ere etorri da gure taldeetara eskubaloian jokatzera, eta hori oso positiboa da. Elgoibarko eskubaloi taldeak erreferentzia dira gure eskualdean. Elgoibarren sekulako arrakasta dauka eskubaloiak. Beste herrietan ez dago horrelakorik, denak harrituta geratzen dira. 147 jokalaririk ditugu guztira, 89 neska eta 58 mutil.



Zeintzuk dira zuen helburuak denboraldi honetarako?

IMH taldea Espainiako Txapelketarako sailkatzea da aurten daukagun helbururik garrantzitsuen eta uste dut lortuko dugula, oso ondo jokatzeko ari baitira. Talde guztiak euren helburuak lortzeko gertu dabilta eta pozik gaude. Gure taldeak goiko taldeekin borrokan ari dira eta denboraldi txukuna egingo dugulakoan nago.

Iazko denboraldi amaierako arazoak ahaztuta daude, beraz...

Bai, zorionez dena ahaztuta dago. Gure ustez denboraldi oso ona egin genuen, gainera. Senior nesken taldeak lorpen handiak eskuratu zituen eta mutilen taldeak, beste hainbeste. Sorpresa izan zen guretzat lehenengo mailara igotzea. Urteetako lanaren arrakasta izan zen. Pozez hartu genuen, baina gauzak ez ziren ondo irten eta ezin izan genuen mutilen senior taldea osatu. Kritikak jaso ditugu, baina zuzendaritzatik ahal genuen guztia egin genuen.

Noizko izango dugu mutilen senior taldea berriz borrokan?

Urte gutxi barru senior mutilen taldea berriz osatzea da gure nahia; datorren denboraldirako sortzeko itxaropena daukagu. Jokalari gazteak datorren urterako senior mailan izango ditugu, eta taldea osatzeko moduan egongo garela uste dut.

Lerun xake taldea hirugarren postuan dago hasi berri den Gipuzkoako Ligan

Bihar, zapatua, Zarauzko talde baten aurka jokatuko dute



Elgoibarko xake taldeak ilusioz ekin dio Gipuzkoako ligaxkari. Hamabost lagunek osatzen dute, beterranoak eta gazteak tartekatuz. Patxi Egeak 47 urte ditu eta Ivan Zapatak berri, 14. Dagoeneko hiru partida jokatu dituzte eta hirugarren postuan daude. Lehenengoan, Eibarren aurka jokatu eta bina geratu ziren. Zarautzen eta Goierriren aurkako partidak izan ziren hurrengoak eta bietan 3 eta 1eko emaitzarekin irabazi zuten.

David Garciak lau orduko lehia behar izan zuen Zarautzen aurka garaipena lortzeko. Bihar ere Zarauzko talde bat izango dute aurkari.

Eskolak

Lerun Xake Taldeak atek zabalik dituzte jokatzeko ikasi nahi edo bere teknika hobetu nahi dutenentzako. Pista Beltzera jo dezakete eguenero, 18:15etik 19:45era bitartean, otsailetik ekainera arte. Mikel Leonek emango ditu eskolak.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1 – Arenas 2
 Elgoibar 3 – Mutriku 1 (erreg.)
 Elgoibar 2 – Zaratz 1 (kadete)
 Elgoibar 3 – Orioko 0 (infantil)
 Orioko 1 – Elgoibar 0 (jub.)
 Aloñamendi 2 – Elgoibar 2 (infantil txiki)
 Hernani 4 – Elgoibar 1 (neskak)

ARETO FUTBOLA

Kenci 3 – Kukullaga 3 (euskal liga)
 Elgoibar 7 – Escolapios 6 (jubentilak)

ESKUBALOIA

San Adrian 21 – Tecnifuelle 17 (sen. neska)
 Egia 32 – Pneumax 25 (jubentil mut.)
 Egia 32 – Tecnomeca 17 (kad. mut.)
 IMH Elgoibar 25 – Zarautz B 23 (kad. neska)
 Leizaran 38 – Cometel Elg. 21 (jub. neska)
 Aterpe 22 – Leizaran A 5 (infantil neska)
 Caldereria 14 – Urrietako 17 (inf. neska)
 H. Txarriduna 21 – Toki Alai 22 (infantil mutilak)
 Bankoa 10 – Arrasate 0 (inf. mutilak)
 Lezo 14 – C. Astigarraga Elg. 15 (infantil neska)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 3

11:00 Elgoibar – Lauburu
 17:30 Xagua – Fortuna

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Barixakua, 1

19:00 Pneumax – Escolapios (jubentil mutilak)
 20:30 Tecnomeca Elg. – Escolapios (kad. mut.)

Zapatua, 2

16:00 Tecnifuelle – Aloña Mendi (senior neska)

ESKU PILOTA

Barixakua, 1

22:00 Lagunak – Antiguako (Kad. 2. maila)

Zapatua, 2

16:30 Hernani – Lagunak (Kad. 1. maila)

Lorea Santiagok Donostiako Nazioarteko krosa irabazi du

Mintxeta Atletismo Taldeko Lorea Santiagok Donostiako Nazioarteko LIII. krosean bere nagusitasuna erakutsi zuen alebin mailan. Gainontzeko kategorietan elgoibartarrak ez ziren hain fin ibili, Mikel Anakabe izan ezik, laugarren postua lortu baitzuen jubentil mailan. Senior mailan Sergiy Lebid eta Marta Dominguez Europako kros txapeldunak izan ziren Lasarteko hipodromoko izarrak.



Etxegiñak zapatuan jardungo du kalean santa eskean eta Elgoibarko Izarra astelehenean ibiliko da baserriz baserri

Orain dela hamabost urte hasi ziren Elgoibarko Izarrakoak baserrietan santa eskean

Bihar, zapatuan, hasiko dira santa eskean Etxegiña taldekoak Elgoibarko kaleetan, urtero sasoi honetan egiten duten moduan. Astelehenean, Santa Ageda bezperan, berriz, Elgoibarko izarrakoek baserrikerik baserri jardungo dute kantuan.

Etxegiña taldeak martitzenean ekin zion entsaiatzeari, bihar irteteko. 9:00etan parroikia osteko bolatokian geldituko dira eta bi taldetan banatuko dira. Talde batek San Roke, Trenbide kalea, Sigmako etxeak eta Santa Klara auzoan jardungo du. Bestea Ermuaran Bide, Mintxeta eta beste kale batzuetatik zehar ibiliko da. 11:00etan Urasandiko La Union elkartearen bat egingo dute. Handik San Lazaro egoitza, San Bartolome, Antonio Arrillaga eta Santa Ana kaleak girotuko dituzte. Errosarioko amabirjinari 14:00etan abestuko diote salbea, Baltasar elkartearen bazkaldu

aurretik. Etxegiñarekin Urain eta Urizar koplariak izango dira. Batutako dirua Caritas elkartearentzat izango da.

Baserririk baserri

Elgoibarko Izarrarekin sekula baino jende gehiago animatu da aurreko baserrikerik baserri ibiltzeko. Bi talde osatuko dituzte, dozena bat lagunekoa bakoitza eta ahal dituzten baserri gehienak bisitatu dituzte. Eurekin Meabe, Ziarda, Areitio eta Narbaiza bertsolariak izango dira. Baltzola Anaiak eta Ekaitz eta Arantxa ere lagun izango dituzte. 14:30etan Plaza Handian kantatu eta gero baserrietarantz joango dira. Afaria San Migeleko elkartearen egingo dute.

Orain dela hamabost urte hasi zen Elgoibarko izarra baserrietan santa eskean. "Gure bisittia estimatzen duten bitartean segitu egingo dugu", nabarmendu dute.



Aurtengo Goya sarietan parte hartuko duten hiru film eskainiko ditu Ongarri zine klubak hurrengo egunotako ziklo berezian

Martitzenera arte egunero izango da Ongarri zine klubaren emanaldia. Izan ere, atzo hasi zen 250 film izeneko ziklo berezia, elkarteak 250 film eskaini dituela ospatzeko.

Goya sarietan parte hartuko duten hiru film ikusi ahal izango dira ziklo horretan: *La Torre de Suso* (hiru nominazio), *Luz de domingo* (bost nominazio), *7 mesas de billar frances* (hamar nominazio).

Bestalde, otsailaren 7tik maiatz amaierara arte, Ongarri betiko emanaldiekin jarraituko du. Otsailaren 7an *La boda de Tuya* filma izango da ikusgai, iazko Berlingo zinemaldian Urrezko Hartza jaso zuena.

250 FILMAK ZIKLOA

Barixakua 1

22:15 *7 mesas de billar frances* (G. Querejeta)

Zapatua 2

19:00 *Luz de domingo* (J.L. Garci)

22:15 *7 mesas de billar frances* (G. Querejeta)

Domeka 3

19:00 *7 mesas de billar frances* (G. Querejeta)

22:15 *Luz de domingo* (J.L. Garci)

Astelehena 4

21:30 *La torre de Suso* (T. Fernandez)

Martitzena 5

21:30 *Luz de domingo* (J.L. Garci)

OHIKO PROGRAMAZIOA (OTSAILA)

Eguena 7

21:30 *La boda de Tuya* (Urrezko Hartza, Berlin 2007)

Eguena 14

21:30 *El bosque del luto* (Epaimahaiaren Sari Handia, Cannes 2007)

Eguena 21

21:30 *Persepolis* (2008ko Oscar sarietara nominatuta)

Eguena 28

21:30 *La estrella ausente* (G. Amelio).

Mozorroak eta jai giroa prest asteburu honetarako

Musika, karaokea, desfileak, lehiaketak... ondo pasatzeko osagairik ez da falta izango

Atzo Pilar ikastetxeko umeek inauteriei ongi etorria eman bazioten, gaur gazteek dantzari helduko diote Kultur etxeko sotoan, 22:30etan, Il Dance Sinuose bikotearen dantza elektronikoarekin.

Inauterietako ekitaldi gehienak, baina, bihar izango dira. Plaza Handia izango da umeentzako gunea. Izan ere, Atxutxiamaika taldeak bostetan ekingo dio *Atxutxikarakeari*. Ordubete geroago, Zuhaitz taldeak txokolata banatuko du.

Gaztetxoen lehiaketa

Geroxeago, 18:30etan, gaztetxoen mozorro desfilea eta koreografiak hasiko dira Plaza Handian, Atxutxiamaikak antolatuta. Izenematea 16:30etatik aurrera izango da. Koreografia dutenek, izena ematerakoan, CDa utzi beharko dute. Informazio gehiagorako, deitu 943-741626.

Mauxitxa txaranga zazpiretan buruhandi eta erraldoiekin irtengo da kalejiran. 23:30etatik aurrera ere berriz jardungo du kaleak alaitzen.

Elgoibarko Izarra elkarteak Madalan egingo du aurtengo mozorro lehiaketa.



DJ baten emanaldiarekin hasiko da 24:30etan. Taldeka edo bakarka parte hartzeko aukera izango da, eta sari mordo dago banatzeko (900 euro gutzira).

Martitzenean, azken egunean, umeen jai izango da. Ikastolakoek 15:15etan euskal inauteria eskainiko dute Plaza Handian (ikastolako frontoian eguraldi txarra eginez gero).

Mozorroren elkartzea 16:30 izango da Plaza Handian eta jarraian "Txiki truk" umeentzako dantzialdiari ekingo zaio. Gero, 18:00etan Mauxitxakoak buruhandi eta erraldoiekin irtengo dira.

Gelaxoren dantzialdiarekin inauteriei agur esateko txanda helduko da. Orkestrak dantzialdia eskainiko du Jubilatuen etxean eta mozorro lehiaketa ere izango da. Bi sari banatuko dituzte.

Aratusteetako erretratu lehiaketa jarri du martxan *elgoiBARREN.net* web guneak



Inauterietako erretratu lehiaketa antolatu du www.elgoibarren.net web guneak eta jaietako argazkirik onenak sarituko ditu. Aurtengo inauterietan Elgoibarran ateratako lau argazki argazki bidali ahal izango ditu parte hartzaile bakoitzak lehiaketara, otsailaren 6a baino lehen.

Hiru sari egongo dira: Gabi jatetxean bi laguntzako afaria, Zumaiako Zelai Talaso Hotelean bi laguntzako zirkuitoa eta Elgoibarko Atsedean Kiromasaje Zentroan bi orduko tratamendua. Lehenengo bi sariak Ongarri Elkarteko kideek emango dituzte eta hirugarrena parte-

hartzaile guztien artean zozketatuko da. Epaimahaiak argazkien orijinaltasuna, alaitasuna eta koloreak hartuko ditu kontuan.

Argazkiok e-posta bidez bidal daitezke elgoibarren.net@elgoibarkoizarra.com helbidera, edo bestela CD batean grabatuta BARRENeke lokalera ekarri. Argazkiok 2 MB baino gutxiago izan beharko dute.

Erretratuak www.elgoiBARREN.net gunean ikusi ahal izango dira. Bertan daude lehiaketan parte hartzeko arau guztiak.

LANA

ESKAERA

- Neska, garbiketa lanerako edo pertsona helduak zaintzeko, orduka edo egun osorako. ☎ **638 420 860**
- Neska prest, pertsona helduak edo garbiketa lanerako. ☎ **616 230 814**
- Igeltsero edo margolari lanak egiteko mutila eskaintzen da. ☎ **664 606 102 / 605 207 081**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanerako edo pertsona helduak zaintzeko. ☎ **943 530 407**
- Mutil makinista lanerako prest. Gida baimena badu. ☎ **616 207 343**
- Neska pertsona helduak zaintzeko prest. ☎ **699 576 107**
- Mutila, haragitegian lan egiteko prest. ☎ **610 913 346**
- Neska, garbiketa edo sukaldarian laguntzeko prest. ☎ **678 939 382**
- Neska, nagusiak zaintzeko edo garbiketarako orduka egiteko. ☎ **686 127 137**
- Neska, garbiketarako edo ostatuan lan egiteko prest. ☎ **676 853 028**
- Neska, nagusiak eta umeak zain-tzeko edo garbiketarako orduka egiteko. ☎ **943 530407**
- Neska, nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanerako. ☎ **690 296 857**
- Neska, nagusiak edo umeak zain-tzeko edo garbiketarako orduka egiteko. ☎ **648 603 029**
- Neska, nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako orduka egiteko. ☎ **699 813 826**
- Emakumea, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak ordu batzutan zaintzeko. ☎ **943 742201** (13:00-17:00 eta 20:30etik aurrera).
- Soldadura titulua duen peoia, lanerako prest. ☎ **661 225 149**
- Mutila, zerbitzari lan egiteko prest. Urtetako eskarmentua. ☎ **617 061 140**
- Emakumea, dendari laguntzaile edo pertsona helduak zaintzeko. ☎ **943 53 02 43 / 648 505 256**
- Neska, pertsona helduak zaintzeko prest. ☎ **616 230 814**
- Neska, pertsona helduak zaintzeko, garbiketarako edo sukaldarian laguntzaile aritzeko prest. ☎ **638 338 816**

- Emakumea, arratsalde 16:00ak eta 19:00ak bitartean helduak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako prest. ☎ **639 240 038**

ESKAITZA

- Esperientzia duen zerbitzari edo sukaldaria behar dugu. ☎ **696 912 902**
- Zerbitzariak behar dira astegun eta astebukaeretakoko. ☎ **626 967 857**
- Zerbitzari bat behar da astebukaeretakoko. Esperientzia. ☎ **943 74 82 48**
- Enpresa batek peoia behar du. Curriculumak bidali 92 posta-kutxara.
- Emakume euskalduna behar da umea zaintzeko. ☎ **606 034 057 / 620 578 462**

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

- Partikularra, erdigunean, 72 m², prezioa jaitzita. ☎ **660 884 060**
- Etxea salgai San Roke auzoan, hiru logela, kalefakzioa, dena kanpoaldera begira. Komunak berriak. ☎ **696 301 694**
- Etxebizitza salgai Mendaron 91 m², hiru logela, bi komun, sukaldaria eta egongela handiak eta kaldera balkoian. Garaje eta trastoarekin. 2004an jasotako etxea da. ☎ **652 757 240**
- Pisua salgai. Hiru logela, egongela, sukaldaria, komuna, jakitokia, kalefakzioa, oso argitsua, bizitzera sarritzeko moduan. Prezio interesgarria. ☎ **615 769 650**
- Amañan, Eibarren, pisua salgai. Bi gela, egongela, sukaldaria, bainua eta bi balkoi handi. Gasa eta igogailua. ☎ **618 135 429**
- Etxea salgai Erretxindin. Lau logela, sukaldaria berria, eguzkitsua, ganbara, balkoi handia. Altzariekin saltzen da. ☎ **628 115 677**
- 120 m² dituen pisua salgai Errosario kalean, PVC leihoak, berogailua, komun berria, hiru logela, eta bi egongela. Ganbara, aukeran. ☎ **943 741769**
- Pisua salgai Santa Ana 38n. Hiru logela, aldagela, komuna, sukaldaria eta egongela. Altzariekin. Guztiz erreformatua. ☎ **669 006 421**

ALOKAIRUA

- Etxebizitza berri xamarra alokairuan, erdigunean, bi logela, igogailu eta garajearekin. ☎ **943 20 30 83**
- 95 m² lokala alokatzen da. Bi sarrera ditu, bata San Frantzisko kalean eta bestea Urruzuno kalean. ☎ **943 740 009**

GARAJEAK

- Marradun garajea estalia salgai, ikastola ondoan. 7.500 euro. ☎ **943 743578 639 502127**

MOTORRA

- BMW 330i bat salgai. Aldaketa sekuentziala. ☎ **656 707 087**
- Ford Focus Guia 1.8 TDDI Berlina salgai. 2001. urtekoa. ☎ **630 151 231**
- Seat Ibiza 1,9 SDI. Bi ate, diesela, 18.000 kilometroekin, egoera ezin hobean. ☎ **699 017 973**

BESTELAKOAK

- Ordenagailuko mahai mugikorra salgai. Monitorea zeharka. Erretiluak atera daitezke. ☎ **646 502 866**
- Etxeko altzariak, elektrogailuak eta oherako izarak, mantak, koltzak, edredoiak eta kortinak behar dira. ☎ **676 444 171**
- Zero Sette trikitixa erosiko nuke. ☎ **655 742 836**
- Mutriku ezarritako karabana salgai. Extra asko. ☎ **943 743 923 / 629 415 384**

ABISUAK

- Erdigunean brillante txiki bat duen urre zurizko edo zilarrezko belarritako bat aurkitu da ikastola parean. Galdu duenak dei dezala telefono honetara ☎ **680 724 060**
- Txori bat aurkitu da bi argoia hanketan dituela, berde eta hori kolorekoa ☎ **696 608 485**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04



ESKERTZA

2008ko urtarrilaren 23an hil zen, 82 urte zituela,
*Rosario Echeandia Zabala*ren sendiak
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





• Zorionak, **ama-ama**, musu handi bat zure seme-alaben eta biloba guztien partez!



• Zorionak, marimatrakal 22an, 2+2. Mila muxu aita, ama eta Joaneren partez.



• Zorionak, **Arhane**, 5 urte egin dituzulako. Patxo potolo bat Sugar, Goiatz eta etxekeoen partez.



• Zorionak, **Ion Maiztegi**, 4 urte egin dituzu eta. Mila kilo muxu eta zorion etxekeoen partez.



• Zorionak, **Miren**, gaur 8 urte egiten dituzulako, familiakoen eta bereziki zure ahizpa Nagoreren partez.



• Zorionak, **Markel**, urtarilaren 29an 4 urte egin zenuelako, guraso eta Maialenen partez.



• Zorionak, **Aiora**, pitxintxo, bihar urteak egingo dituzulako, ama, aita eta Unaxen partez.



• Zorionak, **Naiara**, bihar 5 urte egingo dituzu eta, anaia Ibon eta familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Ander**, bihar zure urtebetetzea delako. Muxu handi bat familiakoen eta Gorkaren partez.



• Zorionak. Presta zaitez datorren astebukaerarako! Depilatu badaezpada ere.



• Zorionak, **Ariana**, zure familiaren eta bereziki zure anaia Anderren partez.



• Zorionak, **Sara**, zure ahizpatxoia etxean delako. Patxo asko.



• Zorionak, **Malen**, eta gutxienez sei patxo handi familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Kepa**, etzi zazpi urte egingo dituzulako, senideen eta Puraren partez.



• Zorionak, **Julen**, asteazkenean bost urte egin zenuelako. Muxu handi bat etxekeoen guztien partez.



• Zorionak, **Ainhoa** 2 urte egiten dituzulako. Muxu handi bat familia guztiaren partez.

• Zorionak, **Eneritz**, atzo urteak egin zenuelako, Eider eta familia guztiaren partez.



• Zorionak **Elder eta Ainitze**, zuen aitatxo eta amatxoren partez.

Bilbao Express Bidaiak

Bilbao Express Bidaiak agentzian lan egiteko pertsona bat behar da. Sektorian lan esperientzia izatea eta euskaraz hitzegitea ebaluatuko da.

Bidali zure C.V.a e1@viajesbilbaoexpress.com e-postara edo goizez deitu 943 74 39 12 (Pilar) telefonora.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

OKINDEGIA

3 igandea **IBARRENEA**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 1 Ibañez
- 2 Garitaonandia
- 3 Garitaonandia
- 4 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 5 Fernandez
- 6 Yudego
- 7 Zabaleta
- 8 Etxeberria (*Errosario*)

Escala

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38


Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik www.elgoiBAREN.net-en

1 barixakua

22:30 Musika

“Il dance Sinuose” ikuskizuna Sinuoserren eskutik. Kultur Etxeko sotoan.

3 domeka

17:30 Sukalde txokoa

Gaztetxoek San Blas opilak egingo dituzte Gaztelekuko sukaldean.

18:00 Dantzaldia

Gelaxo orkestrarekin dantzaldia Jubila-tuen Egoitzan.

18:30 Paradisu zinema

“Frida” pelikula, Gaztetxean.

4 astelehena

18:00 Ikastaroa

Lurki zeramika taldeak antolatuta, oinarrizko buztin ikastaroa hasiko da. Informazioa 677466344 telefonoan.

7 eguena

19:00 Antzerki ikastaroa

Antzerki tailerra, Taupadaren eskutik. Izena emateko: 943743655

SANTA AGEDA

2 zapatua

9:00 Santa eskea kalean zehar

Etxegiña taldearen eskutik. Irteera bolatokian.

4 astelehena

14:30 Santa eskea baserrietan

Elgoibarko Izarrak antolatuta. Irteera Plaza Handitik.

15:30 Santa Ageda kalez kale

Ikastolako ikasleen kalejira. (Euria bada Ikastolako frontoian).

15:30 Santa Ageda Herri Eskolan

Haur Eskolako umeei abestuko diete lehenengo eta, ondoren, ikastetxeko patioan bilduko dira.

8 barixakua

19:00 Erakusketa

Marcial Iranzoren olio-pinturak ikusgai hilaren 24ra arte Kultur Etxean.

22:15 Antzerkia

“Ezker eskuma” antzezlanaren estreinaldia. Herriko Antzokian.



«7 mesas de billar francés» (Z.K.)

- 1, barixakua: 22:15
- 2, zapatua: 22:15
- 3, domeka: 19:00

«La torre de Suso» (Z.K.)

- 4, astelehena: 21:30

“La Torre de Suso”

Zuzendaria: T. Fernandez

Aktoreak: Javier Cámara, Gonzalo de Castro, César Vea, José Luis Alcobendas

Hamar urte kanpoan eman ondoren, Cundo Asturiasera itzuliko da. Suso hil berri da eta aintzinako lagun koadrila elkartu egingo da berriro, Susori merezitako agurra emateko. Mozkorraldi baten ondoren, bakoitza bere bizimodura itzuliko da. Baina Susok eurentzako planak zituen...

INAUTERIAK 2008

2 zapatua

17:00 Atxutxikaraokea

Atxutxiamaikak antolatuta, Plaza Handian.

18:00 Txokolate jana

Zuhaitz Aisialdi taldeak antolatuta, Plaza Handian.

18:30 Gaztetxoan mozorro desfilea

Plaza Handian, Atxutxiamaikaren eskutik.

19:00 Mauxitxa txaranga

Txarangaren kalejira erraldoi eta buruhandiekin.

23:30 Mauxitxa txaranga

Txarangaren kalejira.

00:00 Dj. emanaldia

Madalako parkean.

00:30 Nagusientzako mozorro lehiaketa

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Madalako parkean

5 martitzena

15:15 Euskal Inauteriak

Ikastolako haurren kalejira eta dantzaldia Plaza Handian.

16:30 Mozorroen elkartzea

Plaza Handian.

Jarraian, umeentzako dantzaldia

Txiki Truk taldearekin, Plaza Handian.

18:00 Mauxitxa txaranga

Kalejira erraldoi eta buruhandiekin.

18:30 Dantzaldia

Gelatxo Orkestrarekin Jubilatuen Egoitzan. Bi mozorro onenak sarituko dira.

Gure gomendioa

Inauterietako mozorro lehiaketa

Zapatua, otsailak 2, Madalako parkean 00:30ean

Elgoibarko Izarrak Nagusientzako Mozorro Lehiaketa berreskuratzen du eta berrikuntzaz beteta dator. Madalako parkean izango da lehiaketa eta sari mordoa banatuko dira. Prestatu duzue mozorroa? Lotsa etxean laga eta irudimeri argi berdea emanek kalera ateratzeko eguna izango da bihar. Inauteri zaleok Madalako Parkean duzue zita.

Eta gogoratu, bestalde, www.elgoibar.net atariak erretratu lehiaketa antolatu duela. Argazkiak atera eta elgoibarren.net@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali.

Ondo pasa Inauteriak!



«Luz de domingo» (Z.K.)

2, zapatua: 19:00

3, domeka: 22:15

5, martitzena: 21:30

«Irabazle & galtzaile»

3, domeka: 16:30

«Luz de domingo»

Zuzendaria: J.L. Garci

Aktoreak: Alfredo Landa, Paula Echevarria, Álex González, Kiti Manver, Manuel Galiana

Talde politiko batzuen borrokak ezbeharrak ekarriko du Asturiaseko Cenciella herrixkako bikote batera: Urbano eta Estrella. Udaleko idazkaria da Urbano, pertsona liberal eta idealista. Talde politiko batek kontrako taldean dagoela pentsatuko du eta bere neutraltasuna dela-eta, mendekua hartuko du.

Argazkiak

IMH Eguna irudiotan

Ilusio handiz prestatzen dute ikasle zein irakasleek IMH Eguna. Gelak hutsik laga, eta jai giroa nagusitzen da: oskol bilketa, bideojokoak, dardo jaurtiketa, txistorra dastaketa... Pasa den ostiralean ez zegoen geldirik egoteko aitzakiarik. Bazegoen zer egin eta zer jan goiz osoan zehar.

Koloreetako dardoak, eta helburu bakarra.



Kontzentrazioa, xakean.



Dj-a, jantokiko ekintzak girotzen.



Auto hori ere "mozorrotu" egin zuten IMH Egunerako.



Teknologien garaian, ezin falta bideojokoak.



BARREN astekarirako
BANATZAILEAK BEHAR DIRA

16 urtetik gorakoak

BARREN Astekaria ♦ Nafarroa Plaza, 2 ♦ 20870 ELGOIBAR
Informazio gehiago: Tel.: 943 74 41 12 ♦ E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit

Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Soraluze

Leihoak-Armailu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Indusketa lanak

Lekunberri Indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserría
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.es
www.excavacioneslekunberri.com



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Ermuaran Bide, 11
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Javi

Erretxindl, 1 behea
☎ 659 772 932

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Zaldúa

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 22 58



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Elbar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Aramar

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Pelo

Herriko Enparantza, 5 behea
MENDARO
☎ 943 03 35 35/660 791 723

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Igeltseritza

Antonio Markez

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia
☎ 943 74 30 94



Eibarrek bizilagun berria du

ING Nationale-Nederlanden dagoeneko bulego berria du Eibarren, zugatik gertu, eta zure aurrezpen eta inbertsio beharrei egokitutako doaneko Aholkularitza Pertsonalizatua jasotzera gonbidatzen zaitu.

Eibarko Txikito, 8-behea
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel. 943 25 43 03

ING NATIONALE-NEDERLANDEN



WWW.INGNN.ES